

UNTXI TXIKIA

1. KAPITULUA: TXIKI ETA BELTXIKI

2. KAPITULUA: NEGURAKO JANARIA
BILTZEN

I. KAPITULUA: TXIKI ETA BELTXIKI

2. KAPITULUA: NEGURAKO JANARIA BILTZEN

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena 2 or.

1. Kapituluak:

- Helburuak 3 or.
- Ekintzak 4 or.
- Gidoi literarioa blokeka denborak zehaztuz 8 or.

2. Kapituluak:

- Helburuak 16 or.
- Ekintzak 17 or.
- Gidoi literarioa blokeka denborak zehaztuz 20 or.

Bibliografia 26 or.
Egileak 27 or.

GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA.

BIDEOKASETE HAU, HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOAREN 2. ETA 3. IKASMAILETAKO HAURREI ZUZENDUTA DAGO.

Gure lanaren ardatz nagusia da komunikazioaren eremuari dagozkion helburuak lantzeko material lagungarria eskaintzea; hauexek dira bereziki landu nahi ditugun helburuak:

- e) Inguru hurbila jakinminezko eta ardurazko jarreraz behatuz eta aztertuz, inguru hori osatzen duten elementuen ezaugarri eta propietate esanguratsuenak identifikatzea, eta haien artean sortzen diren erlazioetariko batzuk antzematen laguntzea.
- f) Haurren inguruko zenbait kultur adierazpen ezagutuz, eta haiekiko errespetua, interesa eta partehartzezko jarrerak garatuz, inguru hurbiletako beste adierazpen kulturaletikiko interesa eta errespetua lan-tzen hastea.
- g) Haurrek bizi, ezagutu edo irudikatu duten errealitatearen alderdi ezberdinak errepresentatzea eta gogoratzea, eta jolasek nahiz beste errepresentazio eta adierazpen forma batzuek eskaintzen dituzten aukera sinbolikoen bitartez adieraztea.
- h) Hitzezko lengoaia ohizko komunikazio egoeretara egokituz erabiltzea: besteek diotena ulertzeko eta ulertua izateko; ideiak, sentimenduak, esperientziak eta desioak adierazteko; esanguren eraikuntzan aurrera egiteko; norberaren jokabidea arautzeko eta besteenean eraginik izateko.
- i) Haurrek, eskura dituzten baliabideen bitartez, beren adierazpenezko ahalmenak aberastea eta zabaltzea; beren adinari dagozkion adierazpen artistiko ezberdinak ezagutzen eta haietaz jabetzen laguntzea.

Gure asmoa komunikazioaren eremua lantzea izan da. Eremu honetako blokeen edukiak harremanetan jartzea oso interesgarria da; esate baterako, "luze/laburra"ren ideia hizkuntzan, matematikan, musikan eta plastikan era ezberdinetan gauzatzen da, eta kontzeptu bera ikuspuntu ezberdinetatik lantzean bereganatze prozesua aberatsagoa suertatzen da.

Musikari dagokionez, aipamen berezia egin nahi izan dugu, orain arte gutxien landu den blokea izan baita.

Musika eta eskola:

Musika, adierazpide eta kultur bide den heinean, komunikabidea da. Ondorioz, kontutan hartuta haurra soinuez, hotsez eta musikaz inguratuta dagoela; eskolan musikak haurrari adierazteko eta besteekin zein inguruarekin komunikatzeko aukera eman behar dio. Irakasle guztiok animatu nahi zintuzketegu, ahal duzuen neurrian eta lasaitasunez, hemen aurkezten dizkizuegun helburuak zuen lan programaren barruan sar ditzazuen.

Izan ere, gure helburu nagusia da haurrak musika, beste batzuen artean, bere komunikabide bihur dezan.

Arestian aipaturiko guztia lortzeko, hona hemen gure lan programa:

1. KAPITULUA: TXIKI ETA BELTXIKI

HELBURUAK:

- Gozatzea.
- Objektu nahiz izakien atributoak bereiztea eta, atributu horiek kontuan izanda, sailkapenak burutzea.
- Soinuak hauteman ondoren, entzun diren ordenan mantenduz zein mantendu gabe, sekuentzia labur bat gogoratzea.
- Irudikapen ez-konbentzionala adierazpide gisa erabiltzea.
- Zenbakia: gehiago/gutxiago, zenbatzea.

EDUKIAK

JARRERAZKOAK:

- Soinu batzuk gogoko izatea.
- Soinuekin esperimintatzeko gogoia eta jakinmina izatea.
- Ahozko mintzaira tresnatzat hartzea eta baloratzea sentimenduak, ideiak eta interesak adierazteko zein besteenak ezagutzeko.
- Kultur tradizioaren testuei dagokienez arreta eta interesa izatea.
- Nork bere eta besteen ekoizpen plastikoak atsegin izatea.
- Jolas dinamikak berak sortzen duen errepresentazioetan parte hartzeko ekimena, ziurtasuna eta konfiantza.

KONTZEPTUAK:

- Soinua: hotsak, musika, zarata.
- Entzumen oroimena.
- Metalen soinua.
- Egurren soinua.
- Eguneroko soinuen hotsa.
- Lehen-gero.
- Berdin/ezberdin.
- Gehiago/gutxiago.
- Seriazioa: 1-1/1-2/2-1/1-1-1.
- Ahozko mintzaira komunikazio tresna gisa.
- Kultur tradizioaren ahazko testuak.
- Mintzaira idatziaren euskarri ezberdinak.
- Kontrola: jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena.

PROZEDURAZKOAK:

- Inguruko hotsak bereiztu eta dagokien iturriarekin erlazionatzea.
- Soinuak irizpideen arabera sailkatzea: etxeoak/kalekoak, musikalak/ez-musikalak.
- Gogokoen duten soinuez beren istorioak sortzea.
- Ipuin eta esperientziei buruzko deskribapen eta kontaktak uler-tzea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak ulertuz.

- Kultur tradizioko testu batzuk ezagutzea, ulertzea eta intonazio egokiz errepikatzea.
- Mintzaira idatziaren euskarri ezberdinak: horma eta lurra.
- Mintzaira idatzi ez-konbentzionala asmo ezberdinekin erabiltzea.
- Gertakariak, bizipenak, fantasiak eta desioak adierazteko plastikazko lanez baliatzea.
- Irudi mota ezberdinen interpretazioa.
- Mugimenduaren aukerak besteekiko elkarrekintzarako bide gisa erabiltzea.
- Egoeren identifikazioetan eta imitazio jokoetan parte hartzea.

EKINTZAK

MOTRIZITATEA eta HIZKUNTZA

Eduki guztietan, lehendabizi, gorputzarekin bizipenak izaten edo gogoratzen hasiko gara.

·Baloia nori eman: Hurrek biribil bat osatzen dute. Haietariko bat erdian dago, baloia eskuetan, irakasleak esaten duenari emango dio, baina ezin du izena esan, ezaugarri/atributu bat aipatu behar du: galtzerdi gorriak dauzkanari

Umeei adibide nahiko entzun dutenean, irakaslearen ordeztu haur batek esango du nori eman baloia, beti ere izena esan gabe.

·Ala kinkirrinera ala xamurrera, "betaurrekoak dauzkanak" jira beste aldera:

·Hurrek "Ilargi Amandrea" abesten dutelarik gelatik libreki mugituko dira, bukatzen dutenean uztai baten barruan sartu behar dira, baina aldi bakoitzean uztai kopurua alda daiteke, batzuetan lehen baino gehiago, edo gutxiago (Uztairik gabe geratzen den haurra ez da kanporatuta geratuko, beraz, ume kopurua beti berdina izango da).

·Denak korroan eserita, bat Beltxiki izango da, erdian puxikak ipini edo beste gauzaren bat ipini eta gero, begiak itxiko dituzte eta irekitzean konturatu behar dira ea gutxiago dauden, berdin ala gehiago (4 urterekin 3,4 gauza. 5 urterekin 3, 4, 5 eta 6). Galdetu nola dakiten eta nola kontrolatu ahal den.

HIZKUNTZA

·Kapitulua ulermena: umeei kontrazki irakasleak lagun dute.

·Egoeraren transposizioa: imitazioa burutu. Lehenago pertsonaiak banatu: zer behar den, non kokatuko diren.

·Abestia buruz ikasi.

Txiki


Beltxiki



·Txiki eta Beltxiki nolakoak diren galdetu. Orri batean bien marrazkia eman, eta galdetu nola margotu eta, berdinak ez direnez, zertan diren ezberdin galdetu.

MATEMATIKA ETA HIZKUNTZA


- Klaseko haurrak berdinak ez direnez, esan zertan diren denak berdinak eta zertan ez.
- Materiala aurrean dutela, matematikako buruketa eztabaidatu.
- Txikiren marrazkiari plastilinazko azenarioak gehitu, eta gero gutxitu.
- Txikiren eta Beltxikiren irudietan, Txiki pozik dago intxaur asko baititu, Beltxiki, ordea, triste, intxaur gutxi baititu. Nola konpon daiteke?





·Kodifikazioa: istorioa umeez egindako marrazkiekin kontatu. (Ez-konbentzionala).

MUSIKA ETA HIZKUNTZA

- Irakasleak jotzen duen kolpe kopuruaren arabera haurrak kopuru horretako taldeetan bilduko dira:
 - 2: binaka.
 - 3: hironaka.
 - 4: launaka (Bost urte).
 - 1: banaka.
 - 5: bosnaka (Bost urte).
- Begiak itxita, ikasgelatik kanpo entzuten diren soinetan 15 segundoz arreta ipini.
- Kasete batean grabatutako gauzen hotsak entzun ondoren, en-tzun dituzten ordena berdinean imitatu:
 - Adb: giltzak, atea, txirrina.
 - 3/4 urte: 3 gauza.
 - 5 urte: 3, 4, 5, gauza.
- Oihartzunaren jokoa: irakasleak egindako gorputz-hotsezko sekuentzia ordena bereberan errepikatu:

Adb.: Txaloak 

Ahoa 

Oinak 

·Ilargi amandrea abestu; ondoren, "ilargi amandrea" txaloz ordezkatu, gainerakoa abestu.



·Ilargi amandrea abestu, ondoren, "ilargi amandrea" aho-hotsez ordezkatu, gainerakoa abestu.

·Ilargi amandrea abestu, ondoren, "ilargi amandrea" belaun kolpez ordezkatu, gainerakoa abestu.

TINBRE DIKTAKETA:

Metalezko eta zurezko tresnak hartu, hots ezberdina sortzen dutela erakutsi, eta haurrari frogatzen utzi. Ondoren, hurrei azalduko diegu haiek asmatu behar dutela nolako tresna jo dugun. Haiek ikur bat egingo dute paperean, soinu ezberdinari ikur ezberdina jarritz. (Ez-konbentzionala).

Hurrengoetan ikurra geuk emango diegu eta denek erabiliko dute (Hurrek egin dutenen artean bat denon artean aukeratuz):

Adb.:

zurezkoa denean




metalezkoa denean



Diktaketan, nahasian egin ahal da edo seriozioak eginez.

Triangelu / klabeak



Hurrek honela idatzi beharko lukete:



Klabeak, triangelu

Triangelu, triangelu, klabeak

Klabeak, klabeak, triangelua

Beste aldagai bat soinu kopurua izan daiteke: 2, 3,...




ENTZUMEN OROIMENA:

ITSASONTZI BAT ETORRI DA-(A)Z BETETA.

Haur bakoitzak esan behar du itsasontziak zer ekarri duen, baina aurrekoek esandakoa gogoratu behar du, eta ordena berdinean. (Talde txikian egin).

ENTZUMEN OROIMENA:

Irudi batzuk behatu ondoren, hurrek haien soinuak imitatu behar dituzte, ordena mantenduz. (Ezkerretik eskubira).



Ekintza hau beste era batera egin daiteke: Irakasleak hotsak egiten ditu, eta hurrek irudiak seinatu, eta ordenan ipini. (Irudiak txarteletan izanda).

SOINUAK MARRAZTU

Honako soinuak entzun ondoren, haien irudikapen grafikoa egin. (Ez-konbentzionala). Oso garrantzitsua da irudikapen ezberdinak erakustea eta talde txikian komentatzea.

Kamioia martxan

Patatak frijitzen

Bihotz taupada

PLASTIKA ETA HIZKUNTZA

Istorian agertzen diren gauzak zein pertsonaiak marraztu, modelatu, zulatu, e.a.

GIDOI LITERARIOA BLOKEKA DENBORA ZEHAZTUZ

1.KAPITULUA:

TXIKI ETA BELTXIKI

(Gaua da. Hontzaren ulua entzuten da off-ean. Mendia. Zuhaitz batean Hontza dago eta Hontzak haurrei hitz egingo die).

Hontza.- Gabon, neska-mutilok. Ni Hontza naiz. Begi Handi dut izena, begi handiak baititut, eta zuhaitz honetan bizi naiz. Hemen, gaua da, baina badakizue hontzek egunez lo egiten dugula eta zuek, aldiz, gauez. Alderantziz, hain justu. Zuek lo egiten duzue, ni esnatuta egoten naiz, eta alderantziz, nik lo egiten dudanean, zuek esnatuta. Penagarria da horrela ezin baikara elkarrekin jolastu. Baina, nik gauean oso ondo pasatzen dut, saguak harrapatzen ditut, eta leihoetatik begiratzen dut, horregatik den-dena dakit. Nik dena ikusten dut. Horregatik den-dena dakit. Nik dena ikusten dut.

03:07

Ilargia.- *(Haurrei).* Gezurra da, Begi Handi gezurti galanta da, ezta? Egunez lo egiten badu, gauza batzuk ezin dituela ikusi argi dago!

Hontza.- *(Haurrei).* Batzuetan, tranpa egiten dut, eta begi bat ireki-tzen dut.

(Keinua eginez). Kontuz ibili gero! Zuek ere ikusten zaituztet, eta den-dena dakit!

(Ilargia agertuko da, Hontzak ikusiko du eta haurrei esango die).

Hontza.- Ilargiaren laguna naiz. Badakizue zer esan behar zaion Ilargiari? Olerki polit bat irakatsiko dizuet:

Ilargi amandrea,
zeruan zer berri?
Zeruan berri onak
orain eta beti.

Ilargia.-

Ilargi amandrea,
zeruan zer berri?
Zeruan berri onak
orain eta beti.

Kaixo, neska-mutilok! Ni, Ilargia naiz. Zeruan bizi naiz eta Hontzaren laguna naiz gauez ikusten baitut.

Nik ere gauza asko ikusten ditut. Eta haur horiek? *(Haurrei).* Nola duzue izena?

Hontza.- *(Haurrei).* Hori, hori nola duzue izena? Baietz nik asmatu!

Ilargia.- Hori ezin da, asko daude eta.

Hontza.- Oso txintxoak dira.

Ilargia.- Bai, oso txintxoak dira.

Hontza.- Oso txintxoak direnez ipuin bat kontatuko diegu, ez al da?

Ilargia.- Nire ustez, hori nahi dute, ipuin bat edo istoriotxo bat nahi dute. Gainera denak prest daude.

Hontza.- Zein kontatuko diegu?

Ilargia.- Zuk nahi duzuna, entzuteko prest nago. Tira ba, hasi nahi duzue.

Hontza.- Gaur nik kontatuko dut, baina hurrengo egunean zuk. Txandaka kontatuko dugu, ados?

Ilargia.- Bai, bai, baina hasi behingoz, bestela bukatu baino lehen alde egin beharko dut, Eguzkia etorriko da eta...

Hontza.- Bai, eta nik ohera joan beharko dut. Ahaztuta neukan. Hau burua nirea!

05:35

...Karatula *Untxia ametsetan: azenario txiki/haundia; ezberdintasun bat duten bi bloke logiko; jostailu bati kolorea, eitea... aldatu.*

Bazen behin untxi txiki bat. Amatzorekin, aitatxorekin eta beste untxi txikiakin bizi zen. Bere etxea lur azpian zegoen, eta bertan lastozko oheak.

Untxiari azenarioak izugarri gustatzen zitzaizkion eta egunero egunero, ohetik altxatu ondoren, azenario bat hartzen zuen baratzatik. Untxiak, batez ere, azenario txikiak maite zituen. Eta egun batean aitak esan zion:

Aita.- Egunon, Eguzkia!

Aita.- Kaixo, Txiki! Begira zenbat azenario ekarri ditudan menditik. Tori, zuretzat!

Txiki.- Eskerrik asko, aita.

Aita.- Ez itzazu denak jan orain. Utzi batzuk biharko.

Txiki.- Bai ondo! Zenbat diren! Gorde egingo ditut, baina bat oraintxe jango dut.

09:26

(Jaten duen bitartean, leku egokia bilatuko du, eta topatzean).

Txiki.- Hementxe gordeko ditut.

(Iladan jarriko ditu). Hau biharko, beste hau etziko, hau etzidamuko eta beste hau hurrengo egunerako. (Zenbatu ditu, notak entzuten diren bitartean). Bat, bi eta hiru, lau.(Errepikatu). Lau azenario ditut (Hontzaren ahotsa off-ean).

Entzun ezazue! Norenak dira pauso horiek? Ez dira Txikirenak bezalakoak.

Beltxikik, beste untxi txikiak, azenarioak ikusi, eta iladaren erdiko bat hartu zion. Beltxiki, oso pozik bere etxezulara joan zen.

10:29

Hontza.- *(Off-ean).* Hurrengo egunean, Txiki ohetik altxatu zenean goseak zegoen eta azenario bat jatea pentsatu zuen.

Txiki.- *(Nagiak ateratzen, etxe-zulotik irten).*

Goseak nago. Azenario bat jango dut.

(Azenarioak dauden lekura heldu, zenbatu notak entzuten diren bitartean, eta erdiko azenario bat falta dela konturatu da).

Txiki.- Bat, bi, eta hiru. Hemen bat falta da. Ez dago atzoko kopuru berdina, gutxiago baizik. Atzo gehiago utzi nituen, eta orain bat falta da. Gaizki zenbatu ote nuen? Edo ez naiz ondo gogoratzen? *(Aurreko aldian egindako marrazketa agertuko da pantailan, memoria piztuz).* Badaezpada ere, berriro kontatuko ditut. Bat, bi, eta hiru. Atzo lau utzi nituen!

(Inguruari begira). Agian hemendik dago. Ondo begiratuko dut. *(Ez du aurki-tzen eta).* Lapurtu didate, baina nork?

11:55

(Inguruari begira baina ez dago inor). Ez dago eskubiderik! Lapurra harrapa-tzen badut, txikituko egingo dut! Beste leku batean gordeko ditut, eta horrela ez dizkidate azenarioak lapurtuko.

(Arrastaka eraman eta beste leku batean utziko ditu. Zenbatu notak entzuten diren bitartean, eta..).

Txiki.- Orain, ondo zenbatuko ditut ez nahasteko, eta idatziko dut. Horrela ez zait ahaztuko zenbat dauden. Bat, bi, eta hiru. *(Notak en-tzuten diren bitartean).*

Hiru daude, bat gaurko, beste bat biharko eta bestea etziko.

Orain idatziko dut. *(Hanka lokatzaz busti eta zuhaitzean hiru aztarna utziko ditu).*

Txiki.- Gaur gauean ez dut lorik egingo, eta azenarioak zainduko ditut.

(Gaua helduko da, eta Txiki bere zuloaren aurrean geratuko da. Aitak esango dio)

Aita.- Txiki, joan ohera, berandu da eta!

Txiki.- Oraintxe joango naiz, egon pixka bat, aita.

14:20

(Hontzaren ahotsa off-ean).

Txiki kanpoan geratu da eta erne dago, baina, poliki-poliki lokartu da. Lokartu denean, pauso batzuk entzun dira basoan eta, hara!, berriro Beltxiki azenarioaren bila doa. Hartu eta gero, poz-pozik joan da bere etxezulara.

Aita.- Txiki, zer egiten duzu? Ene! Kanpoan egin al duzu lo? Hoztu egingo zinen, hau astakeria! Zergatik egin duzu hori?

Txiki.- Nire azenarioak zaindu nahi ditut eta horregatik kanpoan geratu naiz lo egiten.

Aita.- Hori ez da egin behar! Oso txikia zara eta!

Txiki.- Ondo da! Ez dut berriro egingo.

15:47

Aita.- Zatoz barrura gosaltzera.

Txiki.- Azenario bat jan nahiago dut.

Aita.- Ondo da, eta non dauzkazu?

Txiki.- Hortxe bertan.

(Begiratu, notak entzuten diren bitartean zenbatu, eta bat falta da).

Txiki.- Lapur gaizto hori! Bat falta zait! Berriro lapurtu didate. *(Haserre)*. Lapurra harrapatzen badut ...

Aita.- Eta nola dakizu bat falta zaizula? Zuk ez duzu jan?

Txiki.- Atzo hemen gorde nituen, eta apuntatu nituen. Horregatik, oso ondo dakit ez dagoela atzoko kopuru berdina.

Aita.- Nola apuntatu zenituen?

Txiki.- Idatzi egin nuen.

Aita.- Erakutsi, non idatzi zenuen?

(Txikik erakutsiko dio eta Aitak irakurriko du).

Aita.- Bai, hiru marratxo hauek zuk egin dituzu?

Txiki.- Bai, hiru idatzi nituen. Baina orain ez daude hiru azenarioak, bi baizik. Atzo hiru zeuden eta gaur bat gutxiago.

Aita.- Ziur al zaude?

Txiki.- Bai, aita, ni ez naiz okertu. Atzo hiru azenario zeuden, eta hiru marra idatzi nituen.

Aita.- Beno, ez egon triste. Oraindik bi azenario dauzkazu. Zer, bat jango duzu?

Txiki.- Ez, hauek biharko gordeko ditut, eta berriro apuntatuko dut zenbat azenario ditudan.

Aita.- Ez duzu berriro apuntatu behar. Orain aldatu besterik ez duzu egin behar.

Txiki.- Nola?

Aita.- Begira, Txiki, atzo hiru azenario zenituen, baina bat lapurtu dizute. (Marka bat marra batez estaliz). Beraz, orain zenbat azenario daukazu?

Txiki.- *(Ahozgoran zenbatuz)*. Bat eta bi.

Aita.- Oso ondo Txiki! Goazen gosaltzera.

Txiki.- Ederki, goseak nago.

17:49

Hontza.- Txikik oso ondo pasatu du eguna, bere lagunekin jolasean denbora luzea eman du, eta gauean...

(Txiki etxezuloaren aurrean).

Txiki.- Gaur ez dut lorik egingo, eta lapurra harrapatuko dut. Oraingoan bai harrapatuko dudala. Ez naiz lokartuko! Ez horixe!

(Hontzaren ahotsa off-ean).

Txiki erne dago begiak zabal-zabalik.

Txiki.- Lapurra baldin badator, ikusiko du.

(Hontza agertuko da eta Txiki agurtuko du).

Hontza.- Gabon!

Txiki.- Gabon!

Hontza.- Nola zu hemen ordu honetan? Zu oso txikia zara. Ohera joan behar duzu.

Txiki.- Ezin dut, nire azenarioak zaindu behar ditut.

Hontza.- Zer?

Txiki.- Bai, nik azenarioak gorde ditut, eta norbaitek lapurtu dizkit. Eta nik jakin nahi dut nork lapurtu dizkidan.

Hontza.- A, lapurra harrapatu nahi duzu?

Txiki.- Horixe bera! Lapurra harrapatu nahi dut.

Hontza.- Baina gaua da, eta lokartu egingo zara.

Nahi baduzu, ni geratuko naiz hemen, eta, lapurra baldin badator deituko dizut, ados?

Txiki.- Zuk mesede hori egingo didazu?

Hontza.- Jakina! Zoaz ohera eta lo egin ezazu. Lapurra ikusten badut, deituko dizut, lasai.

Txiki.- Asko maite zaitut! Ohera noa, logura naiz eta.

(Bere ibilkeraren soinua entzun da).

(Txiki lotan eta Hontza zuhaitzaren adarrean ... Izar bat etorriko da).

Izarra.- Gabon, Hontza jauna. Zer egiten duzu zuhaitzean mugitu gabe?

19:48

Hontza.- Gabon, Izartxo. Hemen nago lapur bat noiz agertuko den zain.

Izarra.- Lapur bat?

Hontza.- Beno, lapurra, lapurra... ez. Azalduko dizut. Txikiri azenarioa bi lapurtu dizkiote, eta Txikik jakin nahi du nor izan den. Zuk hartu al duzu Txikiren azenarioak?

Izarra.- Ez, ezta pentsatu ere! Eta nola harrapatuko duzu lapurtxoa?

Hontza.- Hor azenarioak daude. Inor badator, nik ikusiko dut eta Txikiri deituko diot.

Izarra.- Oso ideia ona. Nik ere lagunduko dizut, eta, zerutik inor ikusten badut esango dizut. Agur, gero arte!

(Zerumugatik eguzki izpi bat agertu, eta Ilargiak Izarrari dei egingo dio).

Ilargia.- Izartxo, etorri! Gu bagoaz, Eguzkia dator eta.

Izarra.- Agur, Hontza, agur! Bihar arte! Ondo lo egin!

Hontza.- Agur, bihar arte. Izartxo, lapurra ikusi al duzu?

Izarra.- Ez! Ez!

Hontza.- *(Haurrei).* Bai arraroa! Ez da inor azaldu azenarioak har-tzera. Nik lotara joan behar dut.

(Eguzkia etorriko da, eta Hontza agurtuko du).

Eguzkia.- Egunon, Hontza jauna! Bai arraroa dela zu ordu honetan esnatuta ikustea! Ez al zara logura?

Hontza.- *(Nekez).* Bai, Eguzki jauna, baina Txikiri esan diot bere azenarioak zainduko ditudala, eta hemen nago.

Eguzkia.- Eta zergatik zaindu behar dituzu?

Hontza.- Badirudi norbaitek azenarioak lapurtu egin dizkiola. Eta nik esan diot gauez zainduko dizkiodala.

Eguzkia.- Eta?

Hontza.- Eta ezer ez. Ni hemen izan naiz, baina ez da inor etorri azenarioak hartzera. Hau mixeria hau!

(Untxi Txikia esnatuko da eta).

21:57

Txiki.- *(Bere ibilkera entzungo da ahotsarekin batera).* Banoa nire azenarioak hartzera ea guztiak dauden. Gaur Hontzak zaindu ditu, eta lapurra etorri baldin bada, Hontzak harrapatu duela ziur nago. *(Irtengo da bere etxe-zulotik. Bere pausoen hotsa off-ean: Ilargiaren abestiaren pulsuari eta azentuari jarraituz).*

Eguzkia.- Begi Handi, entzun, badator Untxi Txikia. Pausoak entzun ditut.

(Hontza adi-adi, off-ean beste norbaiten ibilera entzungo da: Ilargiaren abestiaren azentua aldatuz).

Hontza.- Bai, arrazoia duzu. Untxi Txikia izango da.

Hontza.-*(Haurrei).* Gaur ez diote lapurtu. *(Harro).* Ni hemen izan naiz begiak zabal-zabalik, oso zaindari ona naiz eta. Begira zein gustura gosaltzen ari den. *(Beste untxi bat etorriko da baina Hontza ez da konturatuko. Untxia azenario bat hartzen ari dela, Txiki helduko da).*

Txiki.- Egunon, Hontza jauna! Hemen nago Zer moduz gaua?

Nire azenarioak ondo al daude?

Hontza.- *(Haurrei).* Ene, baina ez al zaude azenarioa jaten? Orduan, nor ari da jaten?

Hori ez da Txiki....Lapurra da!

Txiki.- *(Haserre).* Aizu, lapurra! Lapur halakoa! Utzi nire azenarioa, nirea da!

Beltxiki.- Ez da zurea, nik ikusi dut, eta hemen ez zegoen inor.

Txiki.- Nireak dira, apuntatu egin nuelako. Nireak dira, nik hemen gorde nituen, eta, begira, ez ahazteko zenbat zeuden idatzi nuen.

Beltxiki.- Eta, zer? Nik ikusi dut, eta nirea ere da.

(Biak borrokan azenarioari tiraka).

Nirea da... Ez nirea da.

Utzi... nirea dela esaten dizut

Ezetz, nirea dela esan dizut!

Txiki.- Ba, Hontzari galdetuko diogu ikusiko duzu! Hontza! Hontza!

Hontza.- Zer nahi duzue?

Txiki.- Azenarioak nireak dira, ezta?

Hontza.- Eta zu nor zara?

Txiki.- Ni Txiki naiz, nor izango naiz ba? Ez al nauzu ezagutzen?

Hontza.- Eta beste hori? Oso antzekoak zarete, ia-ia berdinak, hain berdinak nahastu egiten naizen.

Txiki.- Nor zara zu, e? Esan!

Beltxiki.- Ni Beltxiki naiz, gaua bezain beltza naizelako. Baina azenarioa nirea da, hor zegoen eta nik hartu dut!

Hontza.- Baina, Beltxiki, zurea ez bada ezin duzu hartu. Eska iezaiozu, eta ziur nago emango dizula!

Beltxiki.- *(Ez du eskatu nahi).*

Hontza.- Ea ba, eska iezaiozu, bestela ez dizu emango.

Beltxiki.- Eman azenario bat, mesedez.

25:15

Txiki.- Tori, baina ez kendu.

Hontza.- Gauzak eskatu egiten dira. Ezin dira kendu. Zuri ere ez zaizu gustatzen beste batek zer edo zer kentzea, ez al da?

Hontza.- *(Haurrei).* Hau nahastea!

Nola haserretu diren, ezta? Dena den, ez da lehenengo aldia. Beste egun batean ere, jostailu batengatik eztabaida izan zuten. Ea gogoratzen dudan...

Txiki.- *(Haserre).* Aizu, utzi nire jostailua. Nirea da!

Beltxiki.- Ez da zurea, nik ikusi dut, eta hemen ez zegoen inor.

Txiki.- Nirea da, nik hemen gorde nuen.

Beltxiki.- Eta zer? Nik ikusi dut eta nirea da.

(Biak borrokan jostailutik tiraka).

Biak.- Nirea da! Ez, nirea da! Utzi... nirea dela esaten dizut!

Ezetz nirea dela esan dizut!

Txiki.- *(Beltxikiri).* Hontzari galdetuko diogu, ikusiko duzu! Egia esango du. Hontza! Hontza!

Hontza.- Zer nahi duzue?

Txiki.- Jostailua nirea da ezta?

Beltxiki.- Ez, jostailua nirea da, hor zegoen eta nik hartu dut!

Hontza.- Baina, Beltxiki zurea ez bada, ezin duzu hartu. Eska iezaiozu, eta ziur nago emango dizula!

Beltxiki.- *(Ez du eskatu nahi).*

Hontza.- Ea ba, eska iezaiozu! Bestela ez dizu emango.

Beltxiki.- Eman jostailua, mesedez

Txiki.- Tori, baina ez kendu.

Hontza.- Azkenean lagunak dira eta elkarrekin jolasean ari dira, poz-pozik.

27:10

EZETZ JAKIN!

Aitak bost azenario eman zizkion.

Txikik bat jan zuen.

Beltxikik bat kendu zion.

Beltxikik beste bat kendu zion.

Beltxikik beste bat kendu nahi zion, baina Txiki konturatu egin zen.

Txikik Beltxikiri azenario bat eman zion

Azkenean, Txikik azenario bakarra du.

AGURRA

Hontza.- *(Haurrei).* Beti halako iskanbilatan !!! Zuek bezala, ezta? Beno, gogora ezazue: ezin da kendu, eskatu egin behar da.

Ilargia.- Baina ez badizute eman nahi? Zer?

Hontza.- Jasan beharko!

Hontza.- Eta zuk zer egiten duzu hemen? Eguzkia etorriko da. Joan zaitez!

Ilargia.- Agur!

Hontza.- *(Logale).* Ni ere lotara joango naiz, dagoeneko egunak argitu du eta. Agur eta txintxo izan!

(Hontza lotan geratuko da baina bat-batean begi bat ireki eta esango du).

Hontza.- Badakizue begi bat zabalik izaten dudala eta den-dena ikusten dut!

29:46

2.KAPITULUA:

NEGURAKO JANARIA BILTZEN

HELBURUAK

- Gozatzea.
- Musika tresnen tinbrea bereiztea:
 - 1.-Perkusio mugatua: zura, metal, mintza, sonailuak
 - 2.-Perkusio ez mugatua: haize-perkusioa, haria.
- Perkusio musika tresnen tinbrea hautematea eta bereiztea.
- Irudikapen ez-konbentzionala adierazpide gisa erabiltzea.
- Multzoen ezaugarri eta erlazioak hauteman eta bereiztea: zenbaki kardinala, seriazioa, ezaugarri komuna.
- Entzumen oroimena jolasteko erabiltzea.

EDUKIAK

JARRERAZKOAK

- Tinbreak bereizteko jakinmina eta gozamina.
- Gorputzean tinbre ezberdinak aurkitzeko esperientziak egitean gozatzea.
- Material ezberdinez tinbreak sortzeko jakinmina eta interesa.
- Gauzak aztertu, zenbatu eta alderatzeko zaletasuna.
- Ahozko mintzaira tresnatzat hartu eta baloratzea sentimenduak, ideiak eta interesak adierazteko zein besteenak ezagutzeko .
- Kultur tradizioaren testuei dagokienez, arreta eta interesa izatea.
- Nork bere eta besteen ekoizpen plastikoak atsegin izatea.
- Jolas dinamikak berak sortzen duen errepresentazioetan parte hartzeko ekimena, segurtasuna eta konfiantza.

KONTZEPTUAK

- Tinbrea: haizea, perkusioa, haria.
- Multzoa: ezaugarri komuna.
- Ikur grafiko ez-konbentzionala: Talde osorako ikur grafikoa egotearen komunikaziorako abantaila gisa ulertu (Ikur konbentzionalaren hastapena).
- Ahozko mintzaira komunikazio tresna gisa.
- Kultur tradizioaren ahozko testuak.
- Mintzaira idatziaren euskarri ezberdinak: etiketa.
- Gorputzaren kontrola: jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena, lasaikuntza.

PROZEDURAZKOAK

- Perkusio ez mugatua duten musika tresnen tinbrea hautematea eta bereiztea: (Perkusioa, haizea, haria).

- Perkusio ez mugatukoak diren tresnak tinbrearen arabera sailka-tzea: (Perkusioa, haizea, haria).
- Ikur grafiko ez-konbentzionalak sortzea.
- Taldeko ikur grafikoak sortzea, ulertzea eta komunikatzeko erabiltzea.
- Gogokoen duen soinuez bere istorioak sortzea.
- Ipuin eta esperientziei buruzko deskribapen eta kontaktak uler-tzea, hizkuntzaz kanpoko seinaleak ulertuz.
- Kultur tradizioko testu batzuk ezagutu, ulertu eta intonazio egokiz esatea.
- Mintzaira idatziaren euskarri ezberdinak erabiltzea: kartelak eta etiketak.
- Gertakariak, bizipenak, fantasiak eta desioak adierazteko plastikazko lanez baliatzea.
- Irudi mota ezberdinen interpretazioa.
- Mugimenduzko aukerak besteekiko elkarrekintzarako bide gisa erabiltzea.
- Egoeren identifikazioetan eta imitazio jokoetan parte hartzea.

EKINTZAK

MOTRIZITATEA ETA HIZKUNTZA

Kontzeptuak gorputzarekin bizipenak izaten edo gogoratzen hasiko gara.

·Haur batzuk "azeriak" dira eta gainerakoak harrapatu behar dituzte. Harrapatu ondoren, beren gordelekura eraman behar dituzte, beti ere, bere gorputz/ezaugarrien irizpideen arabera, hau da, "Azeri" bakoitzak etiketa bat eramango du, etiketari dagozkien haurrak harrapatu ahal izango ditu soilik. Adb.: Begi marroiak, ilehoria, galtzerdi zuriak, praka urdinak, kirol-zapatilak... dituztenak.

Gordeleketan azeriari dagokion etiketa ikusgai egongo da.

Hasi baino lehen, jokoa azaldu eta bakoitzari bere ezaugarriez jabearazi, eta horrela jakingo du zein azerik harrapatu ahal duen eta zeinek ez.

·Zubiri-zubiri jokoa honela egin daiteke: 4 haur zubia dira, lau hurrek bi zubi osatzen dituzte. Leloa abestu ondoren, hurrei galdetu behar diete ea zer nahi duten: hurra ala gaztaina, eta azenarioa ala arbia. Haur batzuk zubi batean eta gainerakoak bestean. Aukeratzen dutenaren arabera gomets bat jarri: Hurra = borobil marroi txikia; Gaztaina = borobil marroi handia; Azenarioa = karratu laranja; Arbia = karratu horia.

Leloa: Zubiri-zubiri, nongori nongori, nongo alkate zara zu, Frantziako erregearen seme-alabak gara gu.

Gero zubia izan direnak besteak harrapatzera joango dira sartzeko bere "zakuan" (Lurrean dagoen marra + dagokion etiketa).

Jolastu eta gero arnasa hartuko dute lasai, marrazkia egin eta irakasleari kontatu.

HIZKUNTZA

- Kapitulu osoaren ulermena.
- Abestia buruz ikastea.
- Istorioren binetak ordenatzea eta ondoren kontatzea.
- Transposizioaren elkarrizketaren imitazioa burutu antzezpenaren bidez.

MATEMATIKA ETA HIZKUNTZA

- Matematika hizkuntzako zenbait kontzeptuz mintzatzea.
- Gelako zenbait material sailkatu ordenan jartzeko aitzakiaz: sukaldeko gauza batzuk, eraikuntza jolasak, margoak, errotuluak, etab. Multzoei etiketak ipini, eta gero besteei azaldu. Talde bakoitza lan zati batez arduratuko da.
- Materiala aurrean dutela, matematikako egoera eztabaidatu.

MUSIKA ETA HIZKUNTZA:

Trenaren ibilbidea:

- Gelako bi tokitan bi haur jarriko dira tinbre ezberdineko musika tresna dutelarik. Haur batzuk tren izango dira besteek, begiak itxita, trenaren ibilbidea asmatu beharko dute, horretarako geltokietatik pasatzean haurrek bere musika tresna joko dute. (Gero aldatu: eserita egon direnak trenera, eta alderantziz).
- Soinu -geltoki- kopurua: 2, 3, 4 (5 bost urtekoekin).

Ipuina:

- Irakasleak istorio bat kontatuko du, kaleko gauzak aipatzen direnean, metalezko tresna joko du; etxeko gauzak aipatzen dituenen, berriz, egurrezkoa.
- Adb.: "Ana" ohean zegoen -metala- jantzi zen eta kalera joan zen -zura-. Harri bat aurkitu zuen -zura-.
- Amak leihotik -metala- deitu zion eta baloia -metala- ahaztu zi-tzaiola esan zion. Anek harria -zura- poltsikoan sartu zuen, amari ogitartekoa eskatu zion -metala- eta atarian eseri zen -zura-.
- Ikasgelako lau bazterretan lau txartel jarri, klasean onartutako ikur grafikoekin: zura, metala, sonailuak, mintza. Haurrak, soinua en-tzun ondoren, dagokion ikur grafiko dagoen bazterreara joango dira.
- Haurrei tinbre ezberdineko musika tresnak banatu. Txandaka joko dituzte. Txandak irakasleak antolatuko ditu, baina ikasgelan onartutako ikur grafikoen txartelak erakutsiz.
- Erramona mona abestia abestu, eta egurrezko musika tresnekin pultsua markatu. Ondoren, berriro abestu, azentua metalezko musika tresnekin markatuz.

Pulstua				
Azentua				

- Irakasleak prestatutako grabaketa bat entzun eta ikasitako tinbreak bereiztu.
Adb.: "Kurkuilua" (Bach).
"Klarineterako kontzertua" (Mozart).

·Hormirudia:

Kartulinazko hiru etxe egin, bertan etxetik ekarritako musika tresnen irudiak itsasteko. Etxe bakoitzean tinbre mota berdina duten musika tresnak jarriko dituzte.




·Haurrek benetako musika tresna bat ekartzen badute, horren grabazio bat entzutea komenigarria izango litzateke.

·Ikasgelan onartutako ikur grafikoak aurrean izanda, haurrek, soinua entzun ondoren, dagokion ikurra inguratuko dute.

Adb.: + (Zura). o (Metala). X (Sonailuak)...

·Bakarkako ariketa:

Tinbre mota bakoitzari dagokion musika tresna bat marraztu



GIDOI LITERARIOA BLOKEKA DENBORA ZEHAZTUZ

2.KAPITULUA: NEGURAKO JANARIA BILTZEN

ABESTIA: ERRAMONA

"ERRAMONA MONA KALE ETA ZUR, EZTI LAPIKO, OGI LAPUR"

(Gaua da. Hontzaren ulua entzuten da off-ean. Mendia. Zuhaitz batean Hontza dago eta Hontzak hurrei hitz egingo die).

Hontza.- Gabon, neska-mutilok. Hemen nauzue berriro. Basoan gaua da, baina zuek ez zaudete basoan, zuek eskolan zaudete, eta ez da gaua, ezta? Badakizue hontzek egunez lo egiten dugula, eta zuek, aldiz, gauez. Alderantziz, hain justu ere. Zuek lo egiten duzuean, ni esnatuta egoten naiz eta alderantziz, nik lo egiten dudanean, zuek esnatuta. Beno, ea noiz datorren Ilargia. Bera azaltzen denean, Untxi Txikiaren istorioari jarraituko diogu. Gaur Ilargiak kontatu beharko du. *(Ilargia agertuko da).*

Ilargia.- Gabon, Begi Handi! Gabon, neska-mutilok!

Hontza.- Haurrak zure zain daude, gaur zuri dagokizu ipuina konta-tzea.

Ilargia.- Berehala hasiko naiz, utzi gogoratzen.

Nik ere gauza asko ikusten ditut hemendik goitik, eta orain dena buruan daukat, ea gogoratzen dudan Untxi Txikiaren istorioa. Eser naiteke zure ondoan?

Hontza.- Nigatik bai, baina baimena Zuhaitzari eskatu beharko diozu.

Ilargia.- Hitz egin dezake?

Zuhaitza.- Jakina! Zuk bezala, ipuinetan zuhaitzek eta animaliek hitz egin dezakegu!

Ilargia.- Orduan, jar naiteke ala ez?

Zuhaitza.- Non?

Ilargia.- Zure adarretan!

Zuhaitza.- Baina, minik egin gabe, e! Kontuz!

(Ilargia zuhaitzaren adar batean kokatuko da, Hontzaren ondoan).

Ilargia.- Tira! Ni prest nago, eta haurrak ere bai. Gaur nire txanda da, ipuina kontatzen hasiko naiz.

Hontza.- Zein kontatuko diguzu?

Ilargia.- Gaur ikusi dudana. Untxiaren familia gaur oso goiz jaiki da janari bila joateko.

Hontza.- Eta? Txiki ere joan da? Zer gertatu da?

Ilargia.- Utzi kontatzen! Ixilik egon zaitez!

Hontza.- Bai, bai baina hasi behingoz, bestela bukatu baino lehen alde egin beharko dut, Eguzkia etorriko da eta... Hasi, hasi!

... **Karatula.** Untxia ametsetan egongo da: apalak, kutxak, poltsa etiketadunak,... Berak gauza bat edukiko du, eta non gorde behar duen pentsatzeari ekingo dio. Edo, etxe-zuloa hankaz gora egongo da, eta antolatu beharko du.

35:34

Bazen behin untxi txiki bat. Amatzorekin, aitatxorekin eta beste untxi txikiekin bizi zen. Bere etxea lur azpian zegoen, eta bertan beren lastozko oheak.

(Untxiak lotan).

Aita.- Jaiki, Txiki! Basora joango gara janaria bilatzera! Altxa! Esnatu!

(Untxikumeak jolasean).

37:10

Aita.- Ea, gosaldu, alde egin behar dugu eta!

Txiki.- Nora?

Aita.- Basora, lehenago esan dizut!

Txiki.- Zertara?

Ama.- Janaria biltzera.

Aita.- Laster negua etorriko da, beraz, sustraiak eta fruituak bildu behar ditugu negurako.

Txiki.- Eta nola dakizue negua etorriko dela?

Aita.- Zuhaitzak gorrixkak daude, hostoak ez daude berde, gorrixkak eta marroixkak baizik. Gainera, asko eta asko lurrera erori dira, ez al zara konturatu orbela daudela?

Ama.- *(Off-ean).* Ea Gosaldu, bagoaz eta!. Har itzazue zakuak eta, goazen basora!

(Untxiak jaten ari direla).

Ilargia.- Gosaldu, zakuak hartu, eta basora joan ziren janari bila. Bidean katagorriekin topatu ziren, eta honela hitz egin zuten:

38:18

Untxiak.- Egunon, katagorriak !

Katagorriak.- Egunon Untxiak !

Katagorri ama.- Nora zoazte?

Untxi ama.- Janari bila goaz, laster negua gainean izango dugu eta.

Katagorri ama.- Gu ere bai, eta zaku hauetan gordeko dugu gure etxera eramateko.

Ilargia.- Baina katagorrien taldean bat oso txikia zen. Kattalin. Txikiren laguna. Txikik jolastera joan nahi zuen, eta bere laguntxoari esan zion:

Txiki.- Zergatik ez goaz jolastera, Kattalin?

Kattalin.- Ezin da, gurasoei lagundu behar diegu janaria biltzen.

Txiki.- Baina asko bildu dugu. Elkarrekin jolas dezakegu, aita?

Kattalin.- Bai, ama, mesedez, elkarrekin jolastu nahi dugu

Untxi aita.- Beno, ondo dago.

Katagorri ama.- Baina ez zaitezte urundu.

Ilargia.- Txiki eta Kattalin elkarrekin abiatu ziren jolastera, oso pozik. Bitartean, besteek janaria bildu zuten.

40:42

Untxi ama.- Dena nahastu dugu, eta etxera eramateko banatu behar dugu. Ba, bi pilo egingo ditugu, bat zuentzat eta bestea guretzat.

Katagorri ama.- Ederki, intxaurrak guretzat!

Untxi ama.- Ba, azenarioak guretzat!

Katagorri ama.- Hurrak guretzat!

Untxi ama.- Ba, arbi zuriak guretzat!

Katagorri ama.- Gaztainak guretzat!

Untxi ama.- Eta arbi gorriak guretzat!

(Bi pilo izango dira eta animaliak dena zakuan sartzeko lanean hasiko dira. Txikik eta katagorriak beste zer edo zer ekarriko dute, eta non kokatu behar duten pentsatuko dute).

Txiki.- Non jarriko dut intxaur hau?

Aita.- Pentsa ezazu! Bi pilo daude. Batean gauza batzuk, eta bestean beste batzuk. Ea asmatzen duzun non utzi behar den !

41:55

Txiki.- Hemen arbiak, azenarioak, eta hor, berriz, gaztainak, hurrak... Badakit! Hemen untxien janaria eta hor katagorrien janaria. Intxaurra katagorrien janaria da, beraz, pilo honetan ipiniko dut.

Katagorriak.- Oso ondo, Txiki, oso ondo!. Orain zakuetan ipiniko dugu dena etxera eramateko. Ea!

(Txikik eta bere lagunak zaku txikia edukiko dute, eta bete egingo dute. Ibiltzen hasi, eta katagorriarren zakutik zarata aterako da beraren ibileraren arabera).

Txiki.- Nire zakuak ez du zaratarik egiten. Nik zurea bezalakoa nahi dut.

Katagorria.- Tori, ea orain zarata egiten duen!

(Txiki eta katagorria saltoka eta zarataka... Erritmo jokoak).

Ilargia.- Basoan azeri bat bizi zen. Zarata entzun eta hurbildu zen, goseak zegoen...

Azeria.- Egunooooon! Zer egiten duzue, hain pozik?

(Untxiek eta katagorriek korrika egin).

U eta K.- Azeria da! Ezkuta gaitezen azkar! *(Zuhaitz baten atzean ezkutatu dira).*

Azeria.- Ez izan beldur, zergatik ezkutatu zarete?

U eta K.- Ez egin kasorik, ez hitz egin berarekin. Oso maltzurra da.

Azeria.- Irten, irten, ez naiz gose, ez zaituztet jango!

U eta k.- Ez da egia, jan egin nahi gaitu! Ezin gara irten.

Azeria.- Zer daramazue zaku honetan?

U.- Negurako janaria, utz gaitzazu bakean!

Azeria.- Lagunduko dizuet, astunak dira. Nora eraman behar dira?

Txiki.- Ona da, gure laguna izan nahi du, utziozu laguntzen, aita.

44:29

U.- Ez sinestu, engainatu egin nahi gaitu.

K.- Utz gaitzazu! Alde hemendik, geuk eramango ditugu!

Azeria.- Ez, horixe, zuek txikiak zarete, eta nik lagunduko dizuet. Ea zer dagoen, Gaztainak eta arbiak hor hemenka jaso egingo ditut, eta zakuetan gorde.

(Esan eta egin).

Azeria.- Ea, non gordeko ditut?

Txiki.- Egia da, janaria ekarri digu, gure laguna da.

U.- Baina azeria maltzurra da, eta engainatu egin nahi gaitu! Ezti lapikoa dirudi, baina lapurra da; goxo-goxo hitz egiten du, baina jan egin nahi gaitu.

Katagorria.- Utz gaitzazu, alde hemendik

(Txiki eta aita zuhaitzaren atzera heldu eta denok Azeriari iseka:).

"ERRAMONA MONA KALE ETA ZUR, EZTI LAPIKO, OGI LAPUR"

(Azeria haserre badoa).

45:30

Azeria.- Beste egun batean harrapatuko zaituztet!

Denak.- (Azeriari iseka). "ERRAMONA MONA KALE ETA ZUR, EZTI LAPIKO, OGI LAPUR"

K.- Berandu da, har ditzagun gure zakuak, eta joan gaitezen etxera. Agur, untxiak agur! (Hartu eta egin, baina untxien zakuak zarata egingo du; katagorrienak ez).

(Txiki eta katagorria saltoka eta zarataka...)

(Etxera heldu eta zakua irekitzeko momentuan konturatuko dira zakuak nahastu dituztela; alderantziz egingo dute).

(Katagorri eta untxien etxea aldi berean ikusita).

U. eta K.- Okertu egin gara. Gurea ez den zakua ekarri dugu, zakuak berdinak dira eta.

U. eta K.- Oraintxe bertan kattagorriengana/untxiengana joango naiz.

(Biek batera kontrako norabidea hartuko dute elkarrengana joateko).

(Untxiaren zakuak zarata egingo du, besteak ez).

(Bidean elkarrekin topo egin, eta zakuak lurrean utzi).

K.- Zurea da, okertu egin naiz.

U.- Azkar, hartu zurea azeria etorri baino lehen.

(Katagorri eta untxien etxea aldi berean ikusita).

Aita.- Kaixo! Zakuak aldatu ditugu.

Ama.- Berriro okertu zarete, gurea ez dena ekarri duzu. Zakuak berdin-berdinak dira eta.

47:40

U. eta K. - Beraiengana joango naiz.

(Biek batera kontrako norabidea hartuko dute elkarrengana joateko).

(Untxiaren zakuak zarata egingo du, eta besteak ez).

(Bidean elkarrekin topo egin eta zakuak lurrean utzi).

K.- Zurea da, okertu egin naiz. Oraingoan ez gara okertuko, zakuan etiketa bat ipiniko dugu barruan zer dagoen jakiteko.

U.- Eta zer etiketa?

K.- Marrazki bat, hau da nire etiketa (*Marrazten hasiz, un-txiari esango dio*).

U.- Zer marraztu duzu

K.- Zuri zer iruditzen zaizu?

U.- Katagorria, katagorri bat da.

K.- Jakina, katagorrien janaria dago barruan.

U.- Ba nirean untxi bat ipiniko dut, barruan untxien janaria dagoelako.

K.- Ederki! Azkar, hartu zurea Azeria etorri baino lehen eta goazen etxera.
(*Orain zarata aterako duena katagorriena da*).

K.- Ene! Nola ez gara lehenago konturatu?

U.- Zertaz?

K.- (*Zakuari eraginez*). Entzun! Entzun!

U.- Egia da! Zure zakuak soinua egiten du nireak, ordea, ez. Agur!

(*Etxera heldu; eta zakua irekitzeko momentuan*).

Untxi aita.- Orain ez ditugu zakuak nahastu etiketa bat jarri dugu eta, nik nirea dena hartu dut eta katagorriak berea. Zakuak berdinak dira baina etiketak ez.

(*Katagorri eta untxien etxea aldeberean ikusita*).

Txiki.- Ea, erakutsi etiketa! Zer ipini duzu?

Ama.- (*Off-ean*). Bai, hori!

Txiki.- Zer marraztu duzu?

49:52

Aita.- Zuri zer iruditzen zaizu?

Txiki.- Untxia, untxi bat da.

Aita.- Jakina, untxi bat da eta barruan dagoena jateko da.

Txiki.- Bai, untxien janaria, ez al da?

Aita.- Oso ondo.

Untxi aita.- Janaria gorde eta ordenatu behar dugu.

Txiki.- Eta nola?

(*Txikiren etxean*).

Aita.- Janaria kutxa hauetan sartuko dugu eta gero kutxak zuloan utziko ditugu.

Txiki.- Oso ondo.

Txiki.- (*Hasiz, dena nahastu du*). Kutxa hau beteta dago.

Ama.- Horrela ez, azenarioak azenarioekin, arbiak arbiekin, bakoitza bere antzekoekin.

Txiki.- (*Esanekoa errepikatu egingo du*). Horrela ez, azenarioak azenarioekin, arbiak arbiekin, bakoitza bere antzekoekin!

Txiki.- Bakoitza bere antzekoekin! Badakit! Gorriak gorriekin, laranja laranjaekin, zuriak zuriekin! Oso erreza da!

Aita.- Ederki, oso ondo egin duzu. Orain kutxak zuloan eraman eta ohera, berandu da eta.
(*Txiki eta bere familia oheratuko dira. Ilun egongo da. Bat-batean, argia piztu, eta Txiki agertuko da*).

51:45

Txiki.- Etiketak ahaztu egin zaizkigu, etiketarik gabe ez dugu jakingo gauzak non dauden.
(*Etiketak ipini eta oheratu*).

Txiki.- Arbi gorriak, azenarioak, eta arbi zuriak

(*Katagorria Etxera heldu, eta zakua irekitzeko momentuan*).

Katagorri aita.- Orain ez ditugu zakuak nahastu, etiketa bat jarri dugu eta, nik nirea dena hartu dut, eta untxiak berea. Zakuak berdinak dira, baina etiketak ez.

Ama.- Janaria gorde eta ordenatu behar dugu

Kattalin.- Eta nola?

Ama.- Janaria kutxa hauetan sartuko dugu, eta gero kutxak zuloan utziko ditugu

Kattalin.- (*Hasiz, dena nahastu du*). Kutxa hau beteta dago.

Ama.- Horrela ez, Kattalin, hurrak hurrekin, gaztainak gaztainekin, bakoitza bere antzekoekin gorde behar da.

Kattalin.- (*Esanekoa errepikatu egin du*). Bakoitza bere antzekoekin! Badakit! Hurrak hurrekin, intxaurrekin, eta gaztainak gaztainekin, oso erraza da!

Ama.- Horrelaxe. Oso ondo egin duzu. Kutxak estali eta ohera, berandu da eta.

(Katagorria eta bere familia oheratu dira. Ilun dago. Bat-batean argia piztu eta Katagorria agertuko da).

Katagorria.- Etiketak ahaztu egin zaizkigu. Etiketarik gabe gero ez dugu jakingo gauzak non dauden.

(Etiketak ipini eta oheratu).

Hurak gaztainak eta intxaurrak.

Ilargia.- Eta beti bezala, guk alde egin behar dugu, berandu egin zaigu, gaua bukatu zaigu. *(Urruntzen hasiz).* Agur, neska mutilok!

Hontza.- Ez, mesedez, gera zaitetz pixka bat gehiago, joko bat egin nahi dut zurekin.

Ilargia.- Zertan?

Hontza.- Poltsa honetan gauzak daude. Nik mugituko dut eta zuk asmatu behar duzu non dauden antzekoak.

Gauzekin erritmoak egin. *(Erramonaren abestia erabiliz).*

1.- intxaurrak

2.- haziak

3.- harriak

4.- kriskitinak

BIBLIOGRAFIA

RESURRECCION MARIA DE AZKUE: Euskalerrriaren Yakintza. Literatura Popular del País Vasco. EUSKALTZAINDIA & ESPASA CALPE

VILA, I.: "Adquisición y desarrollo del lenguaje" Narcea argitaletxea.

HEMSY DE GAINZA, V.: "La iniciación musical del niño" Ricordi Americana argitaletxea.

BEAVERD, B.: "Antes del cálculo" Kapelus argitaletxea.

LAPIERRE, A. Y AUCOUTURIER, B.: "Asociaciones de contrastes estructuras y ritmos"

EGILEAK:

PRODUKTOREA

LUISA CALVO

GIDOIA

LUISA CALVO

MUSIKA

CHARO POLENTINOS

SOINU BANDA

ARTURO BLASCO

PIANO JOLEA

ENRIQUE DIAZ DE DURANA

ARTE ZUZENDARIA

ELISA ESPINA

JABIER MAYOR

JAVIER ATXA

ARGAZKI ZUZENDARIA

FERNANDO BLANCO

ZUZENDARIA

YOLANDA LZ DE HEREDIA

EXEKUZIO LANGINTZA

ELOY VAL.

PRODUKZIO BURUA
YOLANDA LZ. DE HEREDIA

KAMERALARIA ETA ARGIZTAPENA
KOLDO DELGADO

EUSKARA ARDURADUNA
IDOIA AGIRRE

JARRAIPENA
AITOR GARCIA

TXOTXONGILOEN BIZI EMAILEAK
ARDURADUNAK
EDUARDO ARGOTE
RAFAEL GONZALEZ

TXOTXONGILOEN BIZI EMAILEAK
CARLOS AJAMIL
AITOR GARCIA

TXOTXONGILOEN EGILEAK
JABIER MAYOR
JABIER ATXA

ATREZZOA
CARLOS AJAMIL

EFEKTU BEREZIAK
TODO A 100 FX

EDIZIOA
MAMEN LZ. DE JUAN ABAD

EDIZIO LAGUNTZAILEA
AITOR GARCIA

INFOGRAFIA ETA TRATAMENDU DIGITALA
TXUS ANGULO

SOINUA
PATXI RAMA
KATANGA ESTUDIOS

TXOTXONGILOEN AHOTSAK
IDOIA AGIRRE
BEATRIZ MTZ. DE ANTOÑANA
MARTA ITURRIA
MARIA LUZARRAGA
AMAIA GARCIA NANCLARES
ION MAIA
ROBERTO OINEDERRA
ASIER BALBERDE
EDUARDO ARGOTE
RAUL CHORREN
LEIRE MENDIBURU
RAFAEL GONZALEZ

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAREN LAGUNTZAZ EGINA.

LEGE GORDAILUA: VI-631/ 97

EIMA 97

L.C. PRODUKTOREA